



821/2019 EBAZPENA, AZAROAREN 20KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN WEB ORRIAN ARGITARATZEKO AGINTZEN DA TEKNIKARI LAGUNTZAILE SANITARIOEN LANBIDE TALDEKO FARMAZIAKO LAGUNTZAILE KATEGORIAN LANGILE ESTATUTARIOA IZATEA LORTZEKO OPOSIZIOALDIA GAINDITU DUTEN TXANDA IREKIKO IZANGAIEN ZERRENDA. ZERRENDA HORI AZKEN PUNTUAZIOAREN ARABERA OSATU DA, LEHIAKETALDIAN ETA OPOSIZIOALDIAN LORTUTAKO PUNTUAZIOAK ZEIN BERE ALDETIK ADIERAZITA. AIPATU KATEGORIAKO DESTINOAK OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ERAKUNDEETAN DAUDE.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 141/2018 Ebazpenaren bidez, Teknikari Laguntzaile Sanitarioen lanbide taldeko Farmaziako Laguntzaile kategorian langile estatutarioa izatea lortzeko hautatze-probetarako deialdia egin zen. Aipatu kategoriako destinoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakundeetan daude (EHAA 33 zk., 2018ko otsailaren 15ekoa).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren, (EHAA 28zk., 2018ko otsailaren 8a).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren azaroaren 28ko 836/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuen web orrian Teknikari Laguntzaile Sanitarioen lanbide taldeko Farmaziako Laguntzaile kategorian langile estatutarioa izatea lortzeko oposizioaldia gainditu duten izangaien zerrenda argitaratzeko agintzen da, azken puntuazioaren arabera. Aipatu kategoriako destinoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakundeetan daude.

Hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorretako 14.1 oinarrian aurreikusitakoarekin bat, eta behin epaimahai kalifikatzaileak oposizioaldia gainditu dutenen zerrenda onartuta, azken puntuazioaren arabera eta lehiaketaldiko eta oposizioaldiko puntuazioak zein bere aldetik adierazita, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariak Osakidetzaren web orrialdean argitaratzeko aginduko du.

Era berean, eta aipatutako 14.1 oinarrian ezarritakoarekin bat, hautaketa-prozesua azkartzeko asmoz, deitutako destinoen kopurua eta oposizioaldia gainditu duten parte-hartzaileen kopurua kontuan hartuta, Epaimahai Kalifikatzaileak prestakuntza baloratuko zaien izangaien kopurua mugatu ahalko du. Nolanahi ere, lan-esperientziari eta euskarari dagokien puntuazioa argitaratuko du.

Esandako guztiagatik, indarrean dagoen legediak pertsonal gaietan ematen dizkidan ahalmenez baliaturik,



EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web orrialdean argitaratzeko agintzea oposizioaldia gainditu duten txanda irekiko izangaien zerrenda, azken puntuazioaren arabera eta lehiaketaldiko eta oposizioaldiko puntuazioak zein bere aldetik adierazita; hain zuzen ere, Teknikari Laguntzaile Sanitarioen lanbide taldeko Farmaziako Laguntzaile kategorian langile estatutarioa izatea lortzeko hautatze-probak gainditu dituztenen zerrenda, honela banaturik:

I) I. Eranskina, hautatze-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda (destinoaz jabetzeko aukera dutenena).

Eskainitako destino guztiak benetan bete ahal izateko, I. Eranskinean eskainitako lanpostuak baino izangai gehiago sartu ahal dira, baina deitutako destinoak baino gehiago ezin dira inolaz ere esleitu.

II) II. Eranskina, hautatze-prozesua gainditu duten gainerako izangaien zerrenda (I. Eranskinean ageri ez direnena).

III) III. Eranskina, prozesutik bazterturik gelditu diren izangaien zerrenda jasoko da bertan, baztertze-arrazoiak adierazita.

IV) IV. Eranskina, deialdiko destinoen zerrenda.

Erreserbatuko da langile desgaituentzat Farmaziako Laguntzaile kategoriako oinarri espezifikoan II. Eranskinean adierazitako destino-kopurua.

Adimen-desgaitasuna duten langileentzako destinoak hautaketa-prozesua gainditzen duten izangai nahikorik ez egoteagatik betetzen ez badira, destino horiek desgaitasuna duten langileentzako erreserba-kupora gehituko dira.

Desgaitasuna duten langileentzako destinoak hautaketa-prozesua gainditzen duten izangai nahikorik ez egoteagatik betetzen ez badira, destino horiek dagokion txandako (barne-sustapena edo txanda irekia) sarbide orokorreko lanpostuetara gehituko dira.

Bigarrena.– Oinarri orokorretako 14.1 oinarrian ezarritakoaren babesean, izangaien Ebazpenaren behin-behineko izaera kontuan izanik, izangai interesdunek 15 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko, behin-behineko ebazpena Osakidetzaren web orrialdean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Idatziz egin beharko dute eta epaimahai kalifikatzaileko presidenteari zuzendu. Bertan, arrazoi zehatzat adierazi beharko dituzte eta haien erreklamazioaren oinarria justifikatzeko dokumentazioa erantsiko diote. Erreklamazioak izangaien behin-behineko Ebazpenaren bidez baztertu edo onartuko dira.

Era berean, izangaien behin-behineko Ebazpena Osakidetzako web orrialdean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 15 egun balioduneko epea izango dute oinarrien 12.5.2 atalean aipatutako eskakizunekin eta merituekin lotutako dokumentazioa zuzentzeko, baldin eta dokumentazio hori aipatutako 12.5.2 atalean ezarritako moduan eta epean aurretik eman bada.

Oinarrien 12.5.2 f) atalean ezarritakorekin bat etorrituz, Osakidetzatik kanpo egindako zerbitzuei dagokienez, ziurtagirian beste Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuak jasotzen direnean, parte hartzen duten deialdiaren oinarri espezifikoetako esperientzia profesionalaren baremoan ezarritako kategoria/lanpostu funtzional berekoak ez diren beste lanpostuetan, izangaiek dagokion Administrazio Publikoaren administrazio-organo eskudunaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute lortu nahi duten kategorian/lanpostu funtzionalean sartzen dela edo baliokidea dela egiaztatzeko.

Era berean eta aipatutako 12.5.2 f) atalean ezarritakorekin bat etorrituz, zerbitzuak Administrazio Publikoaren menpeko edo horri atxikitako sektore publikoko erakundeetan ematen direnean, eta ziurtagiria Administrazio Publiko horrek ematen ez duenean, erakundearen izaera publikoa egiaztatzen duen dagokion Administrazio Publikoaren organo eskudunak igorritako egiaztagiria aurkeztuko da.

Sektore publikoko erakunde instrumentaletan esperientzia dutela alegatzen duten izangaiek, esperientzia profesionaleko ziurtagiriarekin batera, zerbitzua eman zuten lanpostuari lotutako enplegu publikoan sartzeko prozesuaren egiaztagiria eta erreferentzia aurkeztu beharko dituzte.

Hirugarrena.– 15 eguneko epe berberean, I. Eranskinean dauden izangaiek destinoak aukeratu beharko dituzte, horretarako Osakidetza web orrian eskura izango duten eskabide-eredua betez.

14.4. oinarrian aurreikusitakoarekin bat, bi txandetako edozeinetan, 7. oinarrian aurreikusitako ezinduen kupo bidez parte hartzen duten izangaiek, oposizioaldian eskatutako gutxieneko puntuazioa edo gehiago lortuz gero, lehiaketaldian kalifikatu ondoren, destinoa aukera dezakete, euren hurrenkeran, horretarako postua badaukate, edo postua beherago badaukate, kupoko gainerako plazak agortu aurretik, eta barne-sustapeneko txandan edo txanda irekian, dagokien bezala, harik eta langile horientzat gordetako destino-kopurua erabat bete arte.

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupo amaituta kupo horretan parte-hartzaile gehiago badago, dagokien txandan puntuazioak ematen dien postua betetzera igaroko dira. Horrela, aukera izango dute sarbide orokorreko sisteman eskainitako gainerakoen artean destinoa lortzeko.

Laugarrena.– Aurreko erabakietan ezarritako 15 egun balioduneko epe berean, I. Eranskineko izangaiek honako agiriak aurkeztu behar dituzte:

a) 14.2 oinarrian jasotzen diren baremoaren araberako baldintzak eta merituek egiaztatzen dituzten dokumentuen fotokopia konpultsatua balioztatu ahal izateko, honezkero curriculum vitae-ren aplikazioan balioztatuta ez daudenean;

b) oinarrietan eta indarrean dagoen legedian eskatzen den beste edozein baldintza, hizkuntza-eskakizuna barne, Osakidetza egiaztatuta daukanean izan ezik.

Aurkezteko lekuari eta erari dagokionez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aktiboan dauden langileek, euren zerbitzu-erakundearen entregatu behar dute dokumentazio hori. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aktiboan ez dauden langileek, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako Hautaketa eta Horniketara Zerbitzura bidali behar du dokumentazioa (Araba 45, 01006 Vitoria-Gasteiz).

Hala ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikuluan ezarritakoa aplikatu daiteke.

Bosgarrena.– Zerrendako I. Eranskinean dauden izangaiek azterketa mediko bat gainditu beharko dute, destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzeko. Egiaztagiri hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emango du, eta horretarako hitzordua eskatu beharko da Giza Baliabideak zehaztuko duten zerbitzu-erakundearen, 14.3 oinarrian aurreikusitako 15 egun balioduneko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 20an



Maria Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

MARIA PILAR URIARTE BRIZUELA

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria.

RESOLUCIÓN 821/2019, DE 20 DE NOVIEMBRE, DE LA DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, POR LA QUE SE ORDENA LA PUBLICACIÓN EN LA PÁGINA WEB DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD DE LA RELACIÓN PROVISIONAL DE LAS PERSONAS ASPIRANTES POR EL TURNO LIBRE QUE HAN SUPERADO LA FASE DE OPOSICIÓN, POR EL ORDEN DE SU PUNTUACIÓN FINAL, CON INDICACIÓN SEPARADA DE LAS PUNTUACIONES OBTENIDAS EN LAS FASES DE CONCURSO Y DE OPOSICIÓN, DE LAS PRUEBAS SELECTIVAS PARA EL ACCESO A LA CONDICIÓN DE PERSONAL ESTATUTARIO EN LA CATEGORÍA DE AUXILIAR DE FARMACIA DEL GRUPO PROFESIONAL DE TÉCNICOS AUXILIARES SANITARIOS CON DESTINO EN LAS ORGANIZACIONES DE SERVICIOS SANITARIOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.

Mediante Resolución 141/2018, de 7 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocaron pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Auxiliar de Farmacia del grupo profesional de Técnicos Auxiliares Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV nº 33, de 15 de febrero de 2018.

Mediante Resolución 103/2018, de 5 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV nº 28, de 8 de febrero de 2018.

Mediante Resolución 836/2018, de 28 de noviembre, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se ordena la publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud de la relación de aprobados/as en la fase de oposición por orden de puntuación, de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Auxiliar de Farmacia del grupo profesional de Técnicos Auxiliares Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Conforme a lo previsto en la base 14.1 de las bases generales que rigen el proceso selectivo, aprobada por el tribunal calificador la relación provisional de aspirantes que hubieran superado la fase de oposición por el orden de su puntuación final con indicación separada de las puntuaciones obtenidas en las fases de concurso y de oposición, el/la Director/a de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud ordenará su publicación en la página web de Osakidetza.

Asimismo, y de acuerdo a lo dispuesto en la citada base 14.1, el tribunal calificador, en aras a la agilización del proceso selectivo, teniendo en consideración el número de destinos convocados y el número de participantes que hayan superado la fase de oposición, podrá limitar el número de personas aspirantes cuyo apartado de formación sea valorado, publicando en todo caso la puntuación correspondiente a los apartados de experiencia profesional y euskera.

Por todo lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente,



RESUELVO:

Primero.– Ordenar la publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de la relación provisional de aspirantes por el turno libre que han superado la fase de oposición, por el orden de su puntuación final, con indicación separada de las puntuaciones obtenidas en las fases de concurso y de oposición, de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Auxiliar de Farmacia del grupo profesional Técnicos Auxiliares Sanitarios, constituyendo:

I) El Anexo I, la relación de aspirantes que han superado el proceso selectivo con posibilidad de optar a destino.

Al objeto de posibilitar la efectiva cobertura de la totalidad de los destinos ofertados, se podrá incluir en el Anexo I un número superior de aspirantes al de puestos ofertados, sin que en ningún caso puedan adjudicarse más destinos de los efectivamente convocados.

II) El Anexo II, la relación del resto de personal que ha superado el proceso selectivo no incluido en el Anexo I.

III) El Anexo III, contendrá la relación de personal excluido del proceso, con indicación del motivo de exclusión.

IV) El Anexo IV, la relación de destinos objeto de la convocatoria.

Se reservan para su provisión por personal discapacitado el número de destinos indicados en el Anexo II de las bases específicas de la categoría de Auxiliar de Farmacia.

En el supuesto de que los destinos reservados a personas con discapacidad intelectual no puedan cubrirse por falta de candidatos que superen el proceso selectivo, dichos destinos acrecerán al cupo de reserva de personal con discapacidad.

En el supuesto de que los destinos reservados a personas con discapacidad no puedan cubrirse por falta de candidatos que superen el proceso selectivo, dichos destinos acrecerán a los de acceso general del turno correspondiente, promoción interna o turno libre.

Segundo.– Al amparo de lo establecido en la base 14.1 de las bases generales, y atendiendo al carácter provisional de la Resolución de aspirantes, las personas aspirantes interesadas dispondrán de un plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la Resolución provisional de aspirantes en la página web de Osakidetza, para formular las reclamaciones que consideren oportunas, en escrito dirigido al presidente del tribunal calificador, indicando los motivos concretos y adjuntando la documentación justificativa en la que basan su reclamación. Las reclamaciones serán rechazadas o estimadas por medio de la Resolución definitiva de aspirantes.

Asimismo, en el plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la Resolución provisional de aspirantes en la página web de

Osakidetza, podrá subsanarse la documentación relativa a los requisitos y méritos referidos en el apartado 12.5.2 de las bases, siempre que dicha documentación hubiera sido previamente aportada en la forma y plazo establecido en el citado apartado 12.5.2.

Conforme a lo dispuesto en el apartado 12.5.2 f) de las bases, cuando en el certificado consten servicios prestados en otras Administraciones Públicas en puestos distintos a los de la categoría/puesto funcional establecidos en el baremo de experiencia profesional de las bases específicas de la convocatoria en la que se participa, los aspirantes deberán presentar certificado del órgano administrativo competente de la Administración Pública correspondiente, que acredite que dicho puesto está encuadrado o es equivalente, en su caso, al de la categoría/puesto funcional en la que se pretenda hacer valer.

Asimismo, y de acuerdo a lo dispuesto en el citado apartado 12.5.2 f), cuando los servicios sean prestados en entidades del sector público dependientes o adscritos a una Administración pública, y el certificado no sea emitido por dicha Administración pública, se presentará certificado emitido por el órgano competente de la Administración Pública correspondiente que acredite la naturaleza pública de la entidad.

Las personas aspirantes aprobadas que aleguen experiencia en entes instrumentales del sector público, deberán aportar, junto con la certificación de experiencia profesional, certificado y referencia del proceso de acceso al empleo público vinculado al puesto en el que prestaron servicios.

Tercero.– En el mismo plazo de 15 días hábiles, las personas aspirantes que figuren en el Anexo I deberán efectuar su elección de destino, para lo cual procederán a cumplimentar el modelo de solicitud que les será facilitado en la página web de Osakidetza.

De acuerdo con lo previsto en la base 14.4, las personas aspirantes que participen en cualquiera de los dos turnos, a través del cupo de discapacidad contemplado en la base 7, y hayan alcanzado una puntuación en la fase de oposición igual o superior a la mínima exigida, una vez que hayan sido calificados en la fase de concurso, podrán elegir destino, en su lugar, si ocupan puesto para ello, o con anterioridad al agotamiento de las restantes plazas del cupo si su puesto está por debajo, y en su correspondiente turno de promoción interna o libre, hasta la cobertura del total del cupo de destinos reservados a este personal.

Si, agotado el cupo de reserva para personal con discapacidad, hubiera más participantes en este cupo, pasarán a ocupar el puesto que su puntuación les otorgue dentro del turno que corresponda, pudiendo obtener destino de entre el resto de los ofertados en el sistema de acceso general.

Cuarto.– En el mismo plazo de 15 días hábiles establecido en los resueltos anteriores, las personas aspirantes del Anexo I, deberán presentar:

a) fotocopia compulsada de los documentos que acrediten los requisitos y méritos valorables establecidos en la base 14.2, y que no estén validados en la aplicación de currículum vitae, para proceder a su validación.

b) cualesquiera otros requisitos que se exijan en las bases, así como en la normativa vigente, incluido el perfil lingüístico salvo que ya obrara en poder de Osakidetza su acreditación.

En cuanto al lugar y forma de presentación, el personal que está en activo en Osakidetza-Servicio vasco de salud deberá entregar dicha documentación en su Organización de servicios. El personal que no se encuentra en activo en Osakidetza-Servicio vasco de salud, deberá remitir dicha documentación al Servicio de Selección y Provisión de la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, sita en la calle Álava nº 45 de Vitoria-Gasteiz (01006), sin perjuicio de lo previsto en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Quinto.– Las personas aspirantes contenidas en el Anexo I de la relación provisional deberán someterse al reconocimiento médico que acredite la aptitud psicofísica precisa para el normal desempeño del destino, emitido por el Servicio de Prevención de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, para lo cual deberán solicitar cita en la organización de servicios que se determine por la Dirección de Recursos Humanos en el plazo de los 15 días hábiles previsto en la base 14.3.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de noviembre de 2019.


 **Osakidetza**
María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDAKA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

MARIA PILAR URIARTE BRIZUELA

Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud.